


MUSIKA. Konpositore lezoarrak organorako sortutako obrak bildu ditu disko batean Aus_Art records disketxeak



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

MUSIKARIAK, IDAZLEAK ETA LAGUNAK. Jende ugari bildu zen atzo Lezoko udaletxean. Liburuaren idazleak, Udaleko ordezkariak eta diskoan parte hartu duten musikariak izan ziren Garbizuren lagunen artean.

Tomas Garbizuren biografia eta bere obraren katalogoa argitaratu dituzte



Izenburua: 'Tomas Garbizu. 1901-1989'.

Egileak: Patxi Intxaurrendieta eta Patri Urkizu.

Argitaratzailea:

Lezoko Udala.

Orrialdeak: 480.

Atalak: Tomas Garbizu Salaberriari buruzko biografia, haren lagun eta lankideek berataz eginiko testigantzak, konpositorearen zenbait konposio, artikulu asko, eta azkenik, bere musika lanaren katalogoa bildu dituzte.

Patxi Intxaurrendieta eta Patri Urkizu hiru urtez aritu dira musikariaren datuak biltzen

Ainhoa Oiarzabal | LEZO

Musikak eta emozioak gainezka egin zuen atzo Lezoko udaletxean herriko konpositore sonatu Tomas Garbizuri buruzko biografia eta hark organorako sortutako obrak biltzen dituen diskoa aurkeztu zutenean. Herriko txistularien musikaz, Garbizuren musikaz, eta batez ere,

hura gertutik ezagutu eta atzo oso gogoan izan zuten lagun, ikasle, lankide eta miresleen zirrarez bete-beterik zegoen udal areto nagusia txiki gelditu zen.

Neurri bereko hunkipena sentitu zuten herenegun Patxi Intxaurrendietak berak eta Patri Urkizuk idatzitako *Tomas Garbizu 1901-1989* liburua eskuarte jaso zutenean. «Bide

luzea eta batzuetan bihurria izan baita liburu honena», esan zuen, duela hiru urte Garbizuren jaiotzaren mendeurrenaren karietara egitea otu zitzaizen biografia lanari buruz.

Konpositore lezoarrak «mezeria zuen» biografia egitearekin batera, haren musika lanen katalogoa egitea erabaki zuten: «Partiturak, Eresbilen gorderik dauden obrak, diskoetako piezak... Bere lanen zerrenda oso-rik eta zehatz idaztea, alegia».

Katalogo zehatza

Bi helburu nagusi horiek betetzeko, bost ataletan banatu dute liburua. Tomas Garbizuren biografia da lehenengo atala. Lezon igarotako haurtzaroa, Arantzazun ikasle izandako garaia, Donostian musika ikasle gisa igarotako urteak... gaztaro-ko gertaerak bildu dituzte hasierako orrialdeetan. Horren ondotik, 36ko gerrak iparraldean erbestera nola eraman zuen eta han Xabier Iratzeder idazlearekin nahiz Charles Lebout organista eta konpositore paristarrarekin izaniko harremana kontatu dute. Gero, Madrilgo egonaldi luzea eta azkenik, berriro Donostiara etorri eta hil arte eginiko lan andanaren berri jaso dute biografiaren amaierako orrialdeetan.

Bigarren atalean Garbizuren lagun, ikasle edo lankide izan zirenek berori nola gogoratzen duten jaso dute, testigantza gisa. Jose Ignazio Ansorena txistulariak, Pello Zabala fraileak, Eustasio Etxezarreta liturgi idazkariak, Ander Letamendia sendagileak eta beste hainbatek beren barrua «hustu» dutela adierazi zuten Intxaurrendietak.

Hirugarren atalean Garbizuren zenbait konposizioetara hurbiltzeko saioa egin dute. «Batez ere, zein tematika erabiltzen duen, zein iturritik edaten duen eta abar ezagutzeko». Atal horri konpositore lezoarrak prentsarako idatzitako hainbat artikulu jarraitzen diote. «Bertan, 29 urteko Tomasek eta 75 urteko Tomasek nola idazten zuten biltzen ahalegindu gara».

Liburuaren bosgarren atalean sartu dute Garbizuren musika lanen katalogo txukuna. Obra bakoitzaren izenburua, interpretatzaileak, argitaratua izan denetz... informazio asko paratu dute pieza bakoitzaren ondoan. «Lan gehiago dago egiteko. Hau lehen urratsa izan da», esan eta bukatu zuen Intxaurrendietak beren lanari buruzko azalpena.

Berarekin batera liburua idazten jardun duen Patri Urkizuk Garbizu herritarra ekarri zuen gogora atzoko agerraldian. Haren hitzak, haren jokaerak biziberritu zituen. «Barne muinetik

GARBIZUREN PRESENTZIA

Elkarriketa eta kontzertu birtualak

Aurrerapen teknologikoek Tomas Garbizu *berpiztu* zuten atzo Lezoko udaletxean. Liburuarekin batera argitaratu duten CD ROM-ari esker bere hitzak eta doinuak entzun baitzituzten atzo Garbizu bizi zela berarekin hitz aspertu eta musika emanaldi ugari izandako lagunek. Lezoko udaletxean ziren Pello Zabala frantziskotarrak, Juan Padrosa pianistak, Fernando Etxepare Ametsa abesbatzako kideak... hunkiturik entzun zituzten Garbizuri eginiko elkarriketak zein konpositorearen obrak.

Elkarriketa bikainak dau- de CD ROM-ean, Garbizuren izaera sutsoaren adierazgarri direnak. Musika piezei dagokienean, berriro, Juan Padrosa pianistak, Koro Sainz organistak eta Patxi Intxaurrendietak Garbizuren pieza banarekin eginiko bideo grabazioak bildu dituzte. Txalo zaparrada ederra jaso zuten atzo lehendabiziko aldiz entzun ahal izan ziren saio birtual horiek.

P. INTXAURRENDIETA

Liburuaren egilea

«Zein tematika erabiltzen duen, zein iturritik edaten duen ezagutzeko hurbiltze saioa dago»

ahal zuen gehiena atera zuen», adierazi zuen konpositorearen jardunaren gainean.

Luxuzko diskoa

Liburuaren aurkezpenaren ond- otik Garbizuk organorako sortutako obrak biltzen dituen dis- koa aurkeztu zuten berori argi- taratu duen Aus-Art records disketxeko Juan Rekartek eta bertan parte hartu duten Koro Sainz eta Esteban Elizondo or- ganistek — «luxuzko» interpre- tatzaileak, Intxaurrendietaren hitzetan—. Rekartek Garbi- zuren musika goraiatu zuen, eta bi organistek, Garbizuren ikas- leak biak, hitz ederrak izan zi- tuzten maisuarentzat. Elizon- dok gainera, euskal konposito- rearen obra atzerrian ezagu- taraztea ohorea izan dela esan zuen. Donostiako San Bizente- ko elizako Cavaille-Coll orga- noa erabili dute diskoan.